

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 317

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 18koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (Visesa) enpresaren hitzarmen kolektiboaren 2024ko soldata-taulei buruzko akordioa erregistratu, argitaratu eta gordailutzea xedatzen duena (hitzarmen-kodea: 86100302012017).*

### AURREKARIAK

Lehenengoa.– Abenduaren 16an, adierazitako hitzarmen kolektiboaren batzorde sinatzaileak egindako akordioaren dokumentazioa aurkeztu da REGCONen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– 18/2024 Dekretuaren bidez (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakaria-rena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena), Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sortu zen, 2. artikuluan. 7.1.e) artikulua, berriz, lan-harremanen arloko lan-legedia beteazteko eginkizuna ezartzen dio, besteak beste, sailari.

Era berean, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak, 13.1.i) artikuluan, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmenen, Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa zuzendu eta kudeatzeko egitekoa.

Bigarrena.– Izenpetutako akordioak Langileen Estatutuaren Legearen 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluetako eskakizunak betetzen ditu.

Hirugarrena.– Aurkeztu den akordioa inskribatu beharreko egintza bat da, Laneko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistro eta Gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Inskripzio-eskabidea eta erantsitako dokumentazioa aztertu dira, eta egiaztatu da legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela. Beraz, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboak eta berdintasun-planak erregistratu eta gordailutzeari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoarekin (otsailaren 14ko 20/2023 Dekretuak aldatu egin zuen dekretu hori), hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindua ematea akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan inskribatu eta gordailutu dadin eta alderdiei jakinaraz dakien.

Bigarrena.– Agindua ematea akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 18a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.

«EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA SA» SOZIETATE PUBLIKOAREN 2024KO  
ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO AKORDIO KOLEKTIBOA

Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (Visesa) sozietate publikoaren Zuzendaritza Nagusiak eta langileen legezko ordezkariak akordio kolektibo bat egin dute langileen 2024ko ordainsariei buruz, eta honela idatzita geratu da:

HITZAURREA

2025-07-01ean, Ministro Kontseiluak sektore publikoko langileen ordainsariak % 0,5 gehiago igotzea onartu du 2024rako, 2024rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako baldintzak betetzen baitira.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 17.2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta instituzionalaren zerbitzuko funtzionarioen ordainsari-araubidea eta administrazio horien zerbitzuko gainerako langileen ordainsari-baldintzak aplikatzeko arauak eta gidalerroak urtero ezartzea.

Horregatik, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, hark onar dezan, sektore publikoko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera. Igoera hori eta aurretik onartutako % 2ko igoera batuta, guztira, % 2,5eko igoera egiten du 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Onarpena EHAAn 2025eko uztailaren 30ean argitaratuta, honako hau

ADOSTU DUTE:

Lehenengoa.– 2024. urterako soldata-igoera osagarria zehaztea eta aplikatzea.

Aurretik adierazitakoarekin bat etorritz, akordioa sinatzen duten alderdiek sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak % 0,5 gehiago igotzea adosten dute 2024. urterako, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko, hau da, % 2,5ekoa da igoera guztira 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Igoera 2025eko iraileko nominan ordainduko da. 2024ko urtarriletik abendura eta 2025eko urtarriletik abuztura bitarteko atzerapenak 2025eko irailean ordainduko dira.

Bigarrena.– Paz Torquemadaren esku uztea (NAN \*\*\*9888\*\*) Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan eta Gordailuan izapideak egitea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 30a.

Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SAren izenean.

Zuzendari nagusia,  
CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ.

Langileen izenean, haiek legez ordezkatuta.

CCOO,  
RICARDO JESÚS MEDINA MARTÍN.

ALBERTO GARATE MILLA.

CCOoko independentea,  
AIXA PALACIOS HERNÁNDEZ.

ELA,  
M.<sup>a</sup> FRANCISCA DEL MONTE SÁNCHEZ.

CRISTINA MARTÍNEZ SAINZ.

## I. ERANSKINA

Kategoria	Soldata-maila	2024ko urteko oinarrizko soldata % 0,5eko igoera urtarrietik (2025eko iraila)	2024ko hileko oinarrizko soldata % 0,5eko igoera urtarrietik (2025eko iraila)
Zuzendaria	II	77.510,20	5.536,44
Koordinatzailea	III	67.155,25	4.796,80
I teknikaria	IV	62.961,13	4.497,22
II teknikaria	V	57.695,85	4.121,14
III teknikaria	VI	52.430,57	3.745,04
Erdi-mailako I teknikaria	VII	48.448,67	3.460,62
Erdi-mailako II teknikaria	VIII	45.368,18	3.240,58
Idazkaria	IX	41.900,16	2.992,87
Ofizial administraria	X	39.647,36	2.831,95
I administraria	XI	35.258,66	2.518,48
II administraria	XII	33.338,35	2.381,31
Administrari laguntzailea	XIII	28.193,45	2.013,82

Antzintasuna	2024ko hirurtekoa % 0,5eko igoera 2024ko urtarrietik (2025eko iraila)
Kategoria	
Goi-mailako tituludunak	67,63
Erdi-mailako tituludunak	54,78
Administrariak	49,10

Osagarria	2024ko soldata % 0,5eko igoera 2024ko urtarrietik (2025eko iraila)
Erantzukizuna Prestasuna	3.606,96